

ANOETA ▶

## Zesta-puntan jokatzen Amerikan

Agustin Odriozola  
bitzita osoan aritu da ▶ 4




# Eskualdeko 296 korrikalarik bukatu zuten Behobia-Donostia

**LEHENAK** ▶ Xabier Arratibel izan zen eskualdeko lehen sailkatua, Gil eta Oterminen aurretik ▶ 2,3



Eskualdeko lehen hiru sailkatuak helmugan: Xabier Arratibel, Mañu Otermin eta Jose Carlos Gil. J.SAIZAR



MADDI SOROA

## Babarrun eta gaztainerkin amaitu da Kultur Astea

**BALIARRAIN** ▶ Guztira 120 lagun elkartu ziren igandeko bazkarian; ekitaldien balorazio positiboa egin dute antolatzaileek ▶ 5

LEITZA ▶

## Kantu txapelketako azken saioan sartu dira

Nerea, Maddi eta Birjinia, sailkatuta ▶ 7

<p><a href="http://www.saldias-miguel.com">www.saldias-miguel.com</a> <a href="mailto:saldias@saldias-miguel.com">saldias@saldias-miguel.com</a></p> <p><b>Saldías Miguel</b> Nº D.G.S.J.1759</p> <p><b>ASEGURUETAKO ARTEKARITZA</b></p>	<p><b>KOTXE ASEGURUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-MOTOAK</li> <li>-ZIKLOMOTOREAK</li> <li>-ISTRIPU ASEGURUAK</li> <li>-BIZITZA ASEGURUAK</li> <li>-ETXEBIZITZA ASEGURUAK</li> <li>-BAJAK</li> <li>-ERANTZUKIZUN ZIBILA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- ENPRESAK</li> <li>- MAILLEGUAK</li> <li>- INBERTSIOAK</li> <li>- KOMUNITATEAK</li> <li>- E.P.S.W. (desgrabazio fiskala)</li> <li>- pentzio planak, jubilatzea...</li> </ul>
--	---	--

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa  
Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462

hitza

lagunen  
**txokoa**



## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **MAHALA**ren esneki eta txerrikiak zozketatuko ditugu

**NATURAL -  
NATURALAK**



Mahala baserria  
20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero





## AGUSTIN ODRIOZOLA ▶ ZESTALARI OHIA



I. GARCIA

## «Habanako garaia izan zen hoberena; asko ulertzen zuten bertako pilotazaleek»

Zesta punta dela medio, Ameriketara joan zen Agustín Odriozola anoetarra, bertako hainbat frontoitan jolastuz

IMANOL GARCIA

Agustín Odriozola, 64 urteko anoetarra, Mexikon bizi da gaur egun, Ameriketako herri horretako hiri erraldoian. Bizitzan asko bidaiatu du, bere ofizioak horrela eskatzen baitzion: zesta jokalaria izan zen eta Euskal Herriko, Espainiako, Kubako, Floridako eta Mexikoko frontoietan aritu zen. Herri-minak bultzatuta urtean behin Anoetara etortzen da, hilabete inguru igarotzera.

### Nola sartu zinen zesta puntaren munduan?

Bederatzi urterekin hasi nintzen Beotibarren. Pilotaren inguruan gaztetxoak asko mugitzen ziren eta Elizondo irakaslearekin berrogei bat ikasle aritzen ginen.

### Pilotarentzat, beraz, garai onak ziren haiek?

Bai. 1953. urtean zazpi pilotari atera ziren Ameriketara Beotibarretik, tartean nire anaia Martín, eta horrek gaztetxoengan eragina izan zuen.

### Noiz debutatu zenuen profesionalean?

Hamabost urte nituela, 1956. urtean, izan zen. Madrilerara joan nintzen eta han eman nituen urte eta erdi. Ondoren,

Alakanten izan nintzen, Club Atlético Montemar izeneko frontoi berrian. Bertan sei hilabete eman nituen.

### Eta horren ondoren nondik ibili zinen?

Hortik Anoetara itzuli nintzen eta Tolosan ibiltzen nintzen entrenatzen. Garai horretan debuta egin nuen Floridara joaten ziren profesionalekin Durangoko frontoian.

### Eta noiz egin zenuen salto Ameriketara?

1959. urtean, 17 edo 18 urte nituela, Habanatik kontratua iritsi zitzaidan. Eta horrela, urte bete eman nuen Madrid izeneko frontoian. Gero hiri berdineko Jai Alai frontoian ibili nintzen ere.

### Zein zen erabiltzen zenuen izena pilotan?

Hemen Txikito de Anoeta bezala ezagutzen ninduten eta Ameriketan Odriozola abizena erabiltzen nuen, baina Kuban *txakurtxo*a deitzen zidaten, pilota jan egiten nuelako eta ez nuelako pilotarik galdutzat ematen.

### Eta Kubatik Floridara joan zinen.

Bai, Floridara joan nintzen eta han neguko-udaberriko denboraldia egin ondoren, Gerni-

kako frontoia inauguratzeko deitu ninduten, 1962. urtean. Eta horrela eman nituen urte batzuk: hilabeteak Floridan eta gero beste hilabete batzuk hemengo frontoietan. Azkenean Floridako Daytona Beach frontoitik kontratua egin zidaten eta han egon nintzen pare bat urte. Baina 1968an greba izan zen eta nola ez zen irtenbiderik lortzen Mexikora joan nintzen eta han 1982. urtera arte jarraitu nuen zesta puntan jokatzeko.

### Zein izan da garairik gogokiena?

Habanako garaia izan zen hoberena. Asko maitatzen ninduen ikusleagoak eta asko ulertzen zuten pilotazaleek. Estatu Batuetan ez zioten pilotariaren izenari erreparatzen, gehiago hartzen zuten kontuan bizkarraren eramaten genuen zenbakia apustuak egiteko. Hau da, jokoari baino, emaitzari egiten zioten kasu.

### Esan ohi da pilotariekin diru asko egiten zutela Ameriketara.

Egia esan soldata on bat ateratzen zenuen eta garai horretarako diru dexente izaten zen. Anoetako lehen autoa eta lehen telebista, adibidez, gure familiak izan zuen.

## ADUNA ▶ KULTUR ASTEA

## Munduari itzulia diapositiben bitartez

Eneko Etxebarrietak bizikletaz egindako 46.000 kilometrotako bidaia erakutsiko du



Etxebarrieta eta Okabe bi laguneko bizikletarekin. HITZA

I. GARCIA

Adunako Kultur Astea aurrera darrai eta atzoko kirolarien solasaldiaren ondoren, gaur iluntzean diapositiba emanaldia izango da, 20:30ean kultur aretoan. Eneko Etxebarrieta bidaiari gasteiztarrak 46.000 kilometro bizikletaz izenburutzat duen hitzaldia emango du, munduari buelta eman zioneko esperientziak kontatuz.

Hogeita hamabost herrialdekin igaro zen Etxebarrieta eta 1.420 egun eman zituen bizikletan. Lau kontinentetarik

ibili zen: Europa, Asia, Ozeania eta Amerika. Bidaian neska laguna ezagutu zuen, Miyuki Okabe, eta berarekin jarraitu zuen bidaiatzen.

Orain beste proiektu berri bat dute esku artea bikote bidaiariak: munduari itzulia ematea bi laguneko bizikletan. Kasu honetan norabidea aldatu dute. Aurreko itzulian Ekialdetik Mendebaldera bidaiatu bazuten, orain honetan Ekialdetik Mendebaldera mugituko dira. Bidai berri honetan aurrekoan ibili ez ziren Afrikatik kontinentetik ere igaroko dira.

## MUSIKA ▶

## Ekitaldi ugari eskualdean Santa Zeziliaren omenez

Aduna, Ibarra, Villabona, Zizurkil, Irura eta Anoetan izango dira musika emanaldiak

I. GARCIA

Santa Zezilia eguna azaroaren 22an izango da eta urtero ohi denez, musikariek kontzertuekin omentzen dute beren zaindaria. Horregatik, Loatzo Musika Eskolatik hainbat ekitaldi antolatu dituzte aste honetarako herri ezberdinetan. Hasteko, hilaren 19an, ostirala, herri ezberdinetako ikaslearen kontzertua eskainiko dela Adunan, bertako Kultur Astearen baitan. Musika emanaldia elizan izango da. arratsaldetik 19:00etan elizan eta tal-

de instrumentalez gain, koroak ere arituko dira.

Hilaren 20ean, larunbata, ekitaldi ezberdinak izango dira. 10:00etan Ibarra kalejira izango da, trikitixa eta dulzainarekin. Ordu berdinean beste kalejira bat egingo da Villabonan eta Zizurkilen. Kasu honetan instrumentu guztiak erabiliko dira. Azkenik, Iruran eta Anoetan zehar, 12:00etan hasita, kalejira erraldoia egingo da. Aipatu behar da, aurretik entseguak egingo direla, ostegunean, 19:30ean, Anoetako Ikastolan.

## IKAZTEGIETA ▶

XI. Kross  
Herrikoa,  
igandean

Herrigintza kirol elkarteak XI. Kros Herrikoa antolatu du aurtengoan ere. Krossa, datorren igandean izango da 11:00etan eta korrikalariek hamar kilometro egin behar dituzte. Izena egunean bertan eman behar da 9:00etatik 10:30era, 5 euroren truke. Parte-hartzaileen artean kirol materiala banatu da eta denek hamaiketako izango dute.

## ALBIZTUR ▶

Interneteko  
ikastaroa zabalik  
da oraindik

Albizturko KZ guneak hainbat ikastaro ezberdin antolatu ditu urtean zehar. Oraingoan, Interneten trebatzeko ikastaroa antolatu du 16:00etatik 18:00etara edota 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroa atzo hastekotan zen, baina taldea guztiz osatu ez denez, izena emateko epea luzatu egin dute. Informazio gehiago 943 65 06 85 telefono zenbakian.



Urriko internet ikastaroko ikasleak, gustora. HITZA

## ALEGIA ▶

Eguberritako  
Loteria salgai  
Alegian

Alegiako jubilatutako etxeak Eguberritako Loteria jarriko du salgai gaur 11:00etatik 12:00etara. Bazkideek bost euroren truke erosi ahal izango dute loteria txartela hildaren amaiera arte. Data horretatik aurrera, loteria txartela daudela esan dute edonork izango du aukera Alegiako jubilatuen etxean bertan. Txartelek honako zenbakia dute: 04.251.

## BALIARRAIN ▶ KULTURA

## Amaitu da Kultur Elejira

Herriko frontoian egindako bazkariarekin amaitu zen igandean Kultur Elejira; babarrun eta gaztain jateaz gozatu zuten bildu ziren 120 herritarrek

## MADDI SOROA

Igandean eman zitzaion amaiera Baliarraingo Kultur Asteari. Itxiera ekitaldirako, herri bazkaria antolatu zuten Arkaitz Kultur elkarteko zuzendaritzak eta Jai Batzordeak 20 euroren truke. Bazkaria herriko frontoian egin zuten, eta kanpoan zortzi gradu baziren ere adin guztietako 120 lagun bildu ziren. Aurreko urteetan baino jende gehiago bildu zela adierazi du Bixente Zubeldia Arkaitz Kultur Elkarteko kideak, izan ere «normalean larunbat gauean egiten genuen gaztain jatea, baina igande eguerdian eginez gero jende gehiago animatuko zela pentsatu genuen, eta halaxe gertatu da».

Honako menua izan zuten bertara inguraturiko 120 lagunek. Lehenik, babarrunak, aza,



odolkia eta piperrez lagunduta eta ondoren, gazta eta irasagarra. Amaitzeko, berrix, urtetako ohitura jarraituz, frontoian bertan jarritako danbolinean erretako gaztainak dastatu zituzten herritarrek. Bazkalostean, Oartzungo Maider eta Ixarren trikiti piezak dantzatzeko aukera izan zen frontoian.

Zubeldiak adierazi duenez «jendea oso gustora geratu da; hotz pixka bat akaso, baina jana oso goxoa zegoela eta oso gustura daudela esan dute denek». Herri giroan eta gustura amaitu dute, beraz, Baliarraingo kultur elejira.

## Balorazio positiboa

Igandeko bazkaria eta aste osoan egindako ekintza ezberdinak kontuan hartuta, balorazio positiboa egin du Bixente Zubeldiak, eta zera adierazi du «emankorra izan da Kultur Elejira. Haurrak oso gustura egon ziren malabar eta enkuadernazio tailerren eta helduak ere gustura agertu dira ikusentzuzko eta hitzaldiekin. Parte hartzea handia izan da eta dena ongi atera da». Beraz, denak gustura Baliarrainen.

## iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheha  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: ernio@inmoernio.com  
www.inmoernio.com

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 119.000 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Korreo, 2 logela, erabat berritua, ezin hobeto, igogailua jartzeko aukera.

**Tolosa.** Santa Klara. 4 logela. Berokuntza. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

**Tolosa.** Santa Klara. 2 eta 3 logelako pisuak salgai, sukalde, egongela eta bainugelarekin. Berokuntza. 167.090 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Larramendi kalean kokatua. Orain dela gutxi eraikuntza. 2 logela, sukalde, egongela eta trastelekua. Berokuntza. Ezin hobeto.

**Tolosa.** Amaro zuzen oso egoera

onean dagoen etxebizitza salgai.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

**Tolosa.** Larramendi. Pisu ederra garajearekin salgai.

**Tolosa.** Gernikako lorategian, 108 m<sup>2</sup>. Pisu ederra salgai. Trastelekuarekin.

**Tolosa.** Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikustekoa !!!

**Tolosa.** Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrarekin. Aukera paregabea !!!!

**Tolosa.** Larramendi ibiltokia. 4 logelako etxe atxikia.

**Ibarra.** Julian Gaiarren. Berritutako etxebizitza salgai. 3 logela, sukalde, egongela eta komunak. Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera dauka.

**Ibarra.** Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran dauka.

**Villabona.** Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

**Villabona.** Etxe-ondo. Pisu ganbara eta garaje ibiarekin.

**Villabona.** Errota. Pisu ganbara eta garaje ibiarekin.

**Villabona.** Kale Berrian. Eraikuntza berriko etxe salgai. Garaje bikoitza itxia aukeran.

**Villabona.** Larrea eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua

**Berrobi.** 2 logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

**Berrobi.** Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trastelekua eta garajearekin.

**Alegia.** San Joan kalean 161 m<sup>2</sup>-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

**Ikaztegieta.** Eraikuntza berriko etxe atxikia salgai. 270.455 euro.

**Zizurkil.** Etxe unifamiliarra salgai 1.700 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.

**Ordizia.** Berritutako etxebizitza merkea salgai.

**Peñíscola.** Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Herriaren izenean... espekulazioa! (1)

Urriaren 5ean buruturiko udalbatzarrean EAJ-EAREN aldeko botoekin, Tolosana paperfabrika, Ezeiza eta Errekondonea baserriaren lursailak (kanpatik erreka bitartean daudenak) errekalifikatzeko erabakia hartu zen, bertan 90 etxebizitza inguru eraikitzeko asmoz. Erabaki honek duen garrantzia eta tartean dauden interes ekonomikoak izugarriak izanik, Uztak gai honen inguruko zenbait gogoeta publiko egin nahi dizkizue:

1) Erabateko ezkutukeria eta in-

fornazio eza izan da gai honen inguruan. Udalari legegintzaldiaren hasieratik behin baino gehiagotan eta idatziz informazioa eskatu badiogu ere, ez dugu inondik inora orri bakar bat ere jaso, oraindik ezer ez zeukatela izan da jaso dugun erantzun bakarra. Denon harri-durarako ordea, aurreko udalbatzarrean errekalifikazioa onartu zela genuen prentsaren bidez.

Jakin bagenekien horretan zebiltzala. Begoña Lopezek esana zigun aspalditik EHren legegintzaldian lortzen ez bazuen, hurrengo legegintzaldian lortuko zuela, eta halaxe izan da.

2) Jakina da herri honetan aurreko arau subsidiarioak berri-

behar direla, eta horretan ari da Udala gaur egun. Bertan herriko lursail guztien sailkapena egingo da, hurrengo urteetan non eta zenbat eraiki behar den, zein motatako etxebizitzak egingo diren... Finean, etorkizuneko Ibarra nolakoa izango den erabakiko da.

Arau subsidiarioen proiektua lantzen ari direnean, honek logikaz beste proiektuak gelditzea eskatzen du. Horrela, herri mailako planteamendu orokor bat eginez, zein motatako etxebizitzak eraiki, libreak non eta zenbat, babestutakoak non eta zenbat, edo eta erabaki liteke esaterako toki batzuetan gehiago eraikitzea eta trukea beste sail batzuetan zuhazki-parke bat,

pizina bat edo dena delakoa egin, aparkalekuak non... Hau da, erabakiak Ibarra bere osotasunean begiratuta hartzea eskatzen du arau subsidiarioen onarpenak.

Beraz, ez dauka justifikaziorik babesturiko nekazal eta mintegitako (*vivero*) lur hauetan aldaketa puntual hau planteatzeko. Beste ere batera esanda, herriaren interesak ez baino milioi askotako interes ekonomiko eta espekulazio hutsa daude erabaki honen atzetik.

3) Lortu nahi duten helburuaren arabera, pertsona berdinak, lurzoru berdinetatik egiten duten deskribapena erabat desberdina da. Mintegien defentsa egitean hau zioten: «Errekaren

ibarrean kokaturiko lursailak, probetxamendu intentsiboarekin, lurraren hezetasuna, mikroklimate berezia, belaualdi askoren mantenua, Gipuzkoan kokatua dauden eta kalitate ezin hobeko hazia lortzen den bizitegiak dauden lursail bakanetakoak dira».

Beraien interes ekonomiko eta espekulatuaren justifikatzeko berriz, hau diote orain: «Errekaren ibarrean kokaturiko lursailak, herri barruan kokatuta, hirigintza garapenerako oztoto eta muga, eta batez ere, erreka inguruko pasealeku eta ibilbide publikoak garatzeko oztoto dira».

UZTA PLATAFORMA ▶ IBARRA  
(1) Bihar jarraituko du

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# Zoritxarrak jarraitzen du Ibarrarentzat

## Gasteizen 3-5 galdu zuen eta jokalaria batek ospitalean bukatu zuen

ERREDAKZIOA

Zoritxar ugari ari da izaten aurtengo denboraldian Ibarra areto futbol taldeak eta larunbatean 5-3 galdu zuen Gasteizen Carniceria Saenzen aurka eta Igor Zabalo atezaina ospitalean ingresatu behar izan zuen garuneko konmozioarekin, baina errekuperatu da eta etxean dago.

Etxekoak dominatzen hasi zen partidua, ibartarrei pista azkarrera ohitzea kostatu zitzaielako. Zazpigarren minutuan partiduko jokaldi garrantzitsuenetakoa izan zen. Ibarra-ko defentsak botatako baloia aurrakari bati jo eta Zabalo atezainaren inguruko botatzen baloia hartzeko. Aurrelari gasteiztar batek, nahigabe, aurpegian ostikoa eman zion. Kolpearen on-



Aurtengo denboraldian Ibarra ez du zorte handirik. I.TERRADILLOS

dorioz garuneko konmozioa izan zuen Zabalo, baloia galdu eta beste aurrelari batek atean sartu zuen. Ibararren harridura eta hasererrako, epaileka gola eman zuen, protestei kasurik egin gabe. Atezaina Santiago ospitalera eramane behar izan zuten. Ingresatu egin zuten, baina gauean bertan etxera itzuli zen, larritasunik ez zuelako. Medikazioa-

ren ondorioz, igande gauean ondo zegoen jada.

Partiduak jarraitu egin zuen Mikel Sanz atean zela eta atselderako hiru minutu falta zirela, arabarrek bigarren gola lortu zuten, eta handik minutu batera Hautsik distantzia murriztu zuten.

Atsedena ondoan, bigarren minutuan Kamiok berdinketa lortu zuen, baina seiga-

ETXEAN

Igor Zabalo atezain ospitalera eraman behar izan zuten garuneko konmozioaz, baina ondo dago

rren minutuan zoritxarreko jokaldi batean arabarrek 3-2koa lortu zuten. Baina ibartarrek ez zuten atzera egin eta falta jaurtiketa batean Cristianek berriro berdindu zuen partidua.

Partidua berdinduta, ibartarrek garaipenaren bila joan ziren eta Cristian eta Aierzaren bi aukera eder izan zituzten, baloia zatutaba joz. 31. minutuan 4-3koa iritsi zen kontraeraso batean eta Ibarra, indarrak gabe, etsi egin zuen. Minutua falta zela iritsi zen 5-3koa.

Jubenil Ligako Lauburuk berri, ondo darrai. 0-11 irabazi zion Gazteluetari Bilbon.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURAK  
**ETXESAGASTI**

**Altzo.** 85 m2 eta bi pisuko etxebizitza berri, 707 m2-ko lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Ibarra.** 69 m2 eta trasteleku duen

etxe eraiki berria. Laugarren pisua igogailuarekin. Egongela, sukuldea eta bi logela. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ibarra.** 90 m2-ko etxebizitza, egongela, sukuldea, 2 logela, 2 bainugela eta jantzigelarekin. Kanpoaldera begira. Eguzkitsua. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ordizia.** 291 m2-ko villa salgai. 3 solairukoa. 1.037 m2-ko lursaila. 80.000.000 pta. Etxesagasti. 943 69 68 56  
**Ordizia.** 50m2-ko etxebizitza polita salgai. 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatze. 25.000.000 pta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ordizia.** 80 m2-ko etxebizitza salgai. Hiru logel. Erabat berri, altzariz

hornitua. Igogailuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ordizia.** 291 m2-ko villa, hiru solairurekin. 1.037 m2-ko terrena. 80.000.000 pta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** Etxebizitza eraiki berria salgai. 90 m2-ko. Egongela, sukuldea, 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** 70 m2-ko etxebizitza erabat berri, bi logela. 32.640.000 pta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 90 m2-ko etxebizitza. Egongela, sukuldea, 3 logela eta bainugela. Guztiz berri. Kanpora. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 60 m2-ko etxea. Egongela,

sukuldea, bi logela eta bainugela. Erabat berri. Horma-armairuak. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 61 m2-ko eta 8 m2-ko trasteroa duen pisu altua. Egongela, sukuldea, 2 logela eta bainugela. Guztiz berri. Kanpoaldera. Altzariekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 80 m2-ko etxea. Hiru logela. Berritako. 28.800.000 pta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Foruen etorbidean 90 m2-ko eta 40 m2-ko terraza duen etxebizitza. Trasteleku eta igogailua. Sartzeko moduan. Etxesagasti 943 69 68 56.

**Tolosa.** Pisu altua, igogailuarekin, zerbait berri; hiru logela, terraza ederra. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** 85 m2-ko etxea, hiru logela.

Berritako. Igogailua. 36.000.000 pta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Lursaila duen baserria berritako. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Asteasu.** Etxe individuala. 135 m2-ko hiru solairu eta 15.000 m2-ko lursaila. Sartzeko prest. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Alkiza.** Villa individuala lursailarekin. Kapritxoz. 100 m2 eta hiru solairu. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Errezil.** Landa turismoa alokairuan. Informazio pertsonala. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Behar dira.** Eskera handiagatik: landa eta hirigintza lursailak, etxebizitzak, villak, baserriak... salgai edo alokairuan. Etxesagasti. 943 69 68 56

LEITZA ▶ KULTURA

# Kantuzale txapelketan azken saiorako txartela eskuratu dute herriko parte-hartzaileek

Nerea banakakoan eta Maddi eta Birjina binakako sailetan ariko dira, hurrengo astean Doneztebeko Bordatxon burutuko den finaleko kantaldian

JAIONE ASTIBIA

Nerea Erbiti bakarlaria eta, Maddi Olano eta Birjina Mariezkurrena bikotea dira finaleko txartel hori eskuratu duten Leitzako kantari gazteak.

Horrela, hurrengo asteko larunbatean, hilak 27, arratsal-

dez, zehazki 17:00etatik aurrera, Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan burutuko den Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako azken saioan izanen dira.

Nerea Erbitik, Mutiloa Goitin egin zuen bere saioa, bakarlarigisa, *Bizitzak* kantuarekin. Eta sail honetan aurrera igaro de-

netakoa izan da. Maddi eta Birjiniak, berriz, bikoteen sailean ari dira parte hartzen. Esan behar da, gainera, bi abesti egin zituztela, *Egun argian* eta berariaiek sortutakoa den *Bizi*, eta bi kantuek sailkatzeko merezimenduak eskuratu dituztela, epaimahairen iritzirako. Horre-

la, beraz, Donezteben biak abestu beharko dituzte berriz ere. Hirurek larunbatean jakin zuten berria eta gustura aski zeuden lortutakoarekin.

Kantuzale elkartetik atzo jakinarazi zutenenez, orain arteko saioetan ikusitakoaren arabera, oso maila handia dagoela

azaldu zuten. «Oso lan onak ikusi ahal izan ditugu. Bakarren batzuk jada beste bide batzuk jorratzeko moduan daude», zioen Estangak berak, elkarteko arduradunetako batek. Oso gustura agertu zen, bestalde, eta bereziki, jaialdientan, batez ere Larraintzarren burututakoan, kantarien artean eta jendearen artean sortu zen giroarekin, nonbait epaimahaiok azken erabakia hartzen ari ziren bitartean, parte-hartzaile guztiak eszenatikira igo eta hainbat kantu egin zituzten elkarrekin: «Giro bikaina izan genuen. 200 lagun kantari entzutea eta ikustea zizaragarria da. Gure nahia eta zaletasuna kantuzaletasuna sustatzea da eta hori, han behin behin, lortu genuela ikustea oso pozgarria da». Hurrengo aukera, Donezteben.

LEITZA ▶ GIZARTEA

## Bertso-desafioa eginen dute Etxetxurin 'Maxurrenea herrintzat' aldarrikatuz

Leitza eta Araitz-Beteluren arteko saioa izanen da, afariaren inguruan



Etxetxurian, *Maxurrenea herrintzat* aldarrikatuko dute. ostiraleko bertso afarian. J. ASTIBIA

J. ASTIBIA

Maxurrenea herrintzat ekimenak urte osoan daraman ibibideari jarraiki, ostiral honetan eginen du azaroko ekitaldia. Kasu honetan Etxetxuria elkarrean txanda izanik, bertso-afaria antolatuko dute elkarrean egoitzan bertan.

Baina egun horretarako zerbait berezia nahi eta, «bertso-desafioa» prestatu dute, Leitza eta Araitz-Betelu arteko «norgehiagoka» hain zuzen ere. Leitzaren ordezkari gisa edo ariorenak, Diego Riaño eta Unai

Elizasu izanen dira; Araitz-Beteluren aldeko lana egiten, berriz, Oskar Estanga eta Aritz Salagueta ariko dira. Laurak ere gai librean jardungo dute.

Apustuan parte hartuko duten bertsoariantzariak, txaloak izanen dira eta garailek ez da izanen. Izatekotan, bertan bilduko diren entzuleak izanen dira irabazle, izan ere hau guztia otordu baten bueltan gertatuko baita. Eta sabela ase ondoren, afalondo gozoa izatea bezalakorik?

Noski, bertara joan nahi izanaz gero, lehenbailehen, To-

rrea edo Gaztañaga tabernetan txartela erosi behar da, 18 euroren truke.

Etxetxurian bertan prestatuko dute jatekoa ere, zehazki baratzuri-zopa, zikiroa, postrea eta, kafea eta kopa. Eta 21:00etan dute hasteko ordua, betiere. Beraz asteburuari ekiteko, etxean egindako eta sortutako jaki eta bertsoak izanen dira Leitza.

Etxetxuria elkarrean antolatu duen ekitaldi honekin, beraz, Maxurrenea herriaren beharretarako izan dadin aldarrikatuko dute, beste behin ere.

LEITZA ▶ KIROLA

## Aurrerak beste 3 puntu gehiago eskuratu ditu

Atarrabiako Beti Onak taldearen aurka, 2 eta 1eko emaitzarekin irabazi du partidua

J. ASTIBIA

Igande arratsaldean Aurrerak 2-1eko emaitzarekin, jardunaldiko 3 puntuak etxean gelditzea lortu zuen, Beti Onak-eri irabazi ondoren.

Baina ez zen erraza izan. Asteburu honetakoa, ederki kostatutako garaipena izan zela esan behar da. Atarrabiarekin, hasi eta 8. minuturako gola sartu zuten, etxekoentzat partidua maldan gorakoa jarriz eta halaxe igaro zen lehenengo zatia ere: atsedenera, 0 eta 1ekoarekin joan ziren.

Leitzarrek etsirik ez zuten hartu, ordea, bigarren zatian emaitzak eskuratu. Jokaldi oso onak burutu zituzten, aurkariaren ate ingurura askotan

iritsiz. Horrela berdinketako gola, Joxean Jimenezek sartu zuen, denboraldi honetan bere lehendabizikoa, eta bukatzekotan zirela, garaipeneko sarta zuen Jon Arangoak.

«Partidua azkenik, oso ongi jokatu dute jokalariek, batez ere bigarren zatian. Lana egin dute, asko, eta jokaldi ikusgarriak egin dituzte, zaletuen animoak bizteko modukoak, eta azken emaitza, merezitakoa izan da», zioten. «Hiru puntuak hemen gelditzea oso garrantzitsua zen. Itzuli honetan jokatzeko gelditzen zaizkigun partidua, hirutik bi kanpoan egitekoak ditugu eta etxeok ziurtatuta edukitzeak lasaitasun pixka bat ere ematen du», gaineratuz.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 16a, asteartea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Altsatur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzola, Anoeta, Ballarain, Belaurtza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Iturza, Iruja, Larradi, Leaburu, Lizarza, Orendain, Orreaga, Tolosa, Uribarri, Zizurki

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Euzko  
Jaurjaritza.  
Kultura Salla

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

11

hotzena

9

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Aduna.** Eneko Etxebarrieta bidariaren 46.000km. *bizikletaz* diapositiba emanaldia kultur etxean. Gaur, 20:30etan.

**Leaburu.** Sukaldaritza ikastaroa dohan. Izena emateko, 943 68 22 28.

**Leaburu.** *Agresibitatea haurren eta nerabeen artean* hitzaldia. Udaletxeko gazte gelan 18:00etan.

**Tolosa.** Koro Muro Arraieten, *Tolosaldea bere testamentuetan (1760-1860)* liburua erosi daitezke 20 eurotan 22a bitarte.

**Tolosa.** Tolosa CFko zikloturistek egingo duten afarirako izen-ematea. Afaria Azaroaren 27an egingo da. Izena emateko: 943 65 50 92 edo 649 406 085 zenbakietan.

**Tolosa.** *Beldurraren tratera ipuinen bidez* hitzaldia guraso eta irakasleentzat. Haur Liburutegian 18:00etan.

**Tolosa.** Azaroaren 26rako urteko azken irteera antolatuta du Iturriza jubilatuta elkarteak iraxtera. Izen-ematea elkartearen bertan.

**Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak mendi irteera antolatuta du iganderako, Matute-Matute (Errioxa). Mendiak: Peña Tobia eta Cerro Peñalba. Irteera 7:00etan Pablo Gorosabelen. Izen-ematea: 943 65 37 89 (Alpino).

**ERAKUSKETAK**

**Ibarra.** 2004ko San Bartolome jaietako argazkien erakusketa Kultur Etxean. Abenduaren 3a bitarte egongo dira ikusgai.

**Tolosa.** Anselmo Elizalde. Koadroak. Fronton kafetegia.

**Tolosa.** Ana Jesus Ansorena. Zeramika. Lanbrota taberna.

### ZINEMA

**Tolosa.** *Mar adentro.* Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean. Gaur, ikuslearen eguna.

# Tolosa, inauterien biltzarrean

**TOLOSA ▶** Cadiz-en egin den inauteriei buruzko biltzarrean izan da herriko ordezkari bat, hemengo festa entzutetsuenen berri ematen



Tolosaldeko joandako ordezkariak hainbat azalpen eman zuten herriko inauterien inguruan. HITZA

### ERREDAKZIOA

**T**olosako Inauteriak urrutira iritsi dira oraingoan, penintsularen beste muturreraino: Cadizera, hain zuzen. Andaluziako hiri honetan antolatuta da Inauterien Cadizeko III. Biltzarra. Eta inauteriei buruzko plaza horretan, Tolosa ordezkari, lagun talde bat izan da asteburuan: Joselu Andueza zinegotzia, Jokin Monfort festa teknikaria eta Juan Bautista Aranzabe festa batzordeko kidea eta antolatzaileek espreski gonbidatua. Bil-

tzar honetan ponentzia bat aurkeztu zuten Tolosaldeko joandakoek, bereziki prestatuta eta *Tolosako Inauteriak eta bere zergatia* izenburua zuena. Bai ikusle goiak bai antolatzaileek hemengo inauterien berri izateko gogoz zeuden eta asko gustatu zitzaizkien erakutsitakoa.

Tolosako Inauterietan gain, beste hainbat lekutako inauterien berri eman zen biltzarrean: Santa Cruz de Tenerife, Pontevedra, Vilanova i la Geltru, Cadiz, Pedrera (Sevilla) eta Aguiñes (Gran Canaria). To-

sako ordezkariak gustura gelditu zen herriaren berri eman zutelako eta horrelako biltzar batean herriko inauteriak ezagutzera emateagatik, kanpora begira izan dezakeen oihartzunagatik. Gainera, eztabaidaleku oso ona izan zen, beste

herrietan festa berezi hauek nola antolatzen diren jakiteko, eta bide batez, informazio elkar trukatzeko. Bestalde, ordezkariak azpimarratu nahi du Cadizeko biltzarreko antolatzaileengandik jasotako arreta berezia.

### ZORION AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Elixabet Arandia.  
Zorionak gurasoen partetik.



**ZORIONAK**  
Garikoitz Zubeldia (Lizartza).  
Gaur 7 urte. Anaiaren, gurasoen eta aiton-amonen partetik.

**HITZA,**  
zorion agurren  
tartea

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 beheko  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
HITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

**AZARDAK 20** DANTZA JAIALDIA  
22:00 BEOTIBAR PILOTALEKUAN (TOLOSA)

**UDABERRI  
OINKARI  
ALURR**